BIGARRENA.- LANPOSTUAREN DESKRIBAPENA.-
Sailkapen taldea: A
Destino-osagarriaren maila: 29
Berariazko osagarria: 42.881,70 euro
Hizkuntza eskakizuna: 4, derrigortasun datarik gabe
Lantoki herria: Gasteiz
Dedikazioa: esklusiboa
Ordu prestasuna: 90 ordu
HIRUGARRENA.- BALDINTZAK.-
Euskal Administrazio Publikoetako karrerako funtzionario izatea, A taldekoa eta Administrazio Orokorreko edo Administrazio Bereziko Eskalakoa edo horren baliokidekoa izatea, Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz, eta Zuzenbideko lizentziadun titulua izatea.

LAUGARRENA.- ESKABIDEAK.-
Interesdunek Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari bidaliko dizkiote eskaerak eta Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 38. artikuluan xedatutako eraren batean aurkeztuko. Horretarako, hamabost egun baliodun izango dituzte, iragarki hau EHAA argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskaera horretan datu pertsonalez gain ondokoak ere jakinaraziko dira:
A) ikasketa tituluak.
B) nola herri administrazioan hala enpresa pribatuan izandako lanpostuak.
C) egindako ikasketak eta ikastaroak eta dakizkien hizkuntzak
D) izangaiak egoki irizten dituen bestelako merezimenduak
Horrekin batera, eskatutako baldintzak eta alegatutako merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu behar da.
BOSGARRENA.- EBAZPENA.-
Izangaiek aurkeztutako merezimenduak aztertuta, Diputatu Nagusiaren Kabinetearen zuzendariak izendapen proposamena egingo dio Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari.
Izangaien arteko inor lanposturako egoki jotzen ez bada, deialdia bete gabe utz daiteke.
Lanpostua Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuaren foru agindu bidez esleituko da.
SEIGARRENA.- AURKA EGITEA.-
Oinarri hauek, deialdia bera eta horien ondorio diren administrazio egintza guztiak aurkatu ahal izango dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako kasu eta moduetan.

SEGUNDA.- DESCRIPCIÓN DEL PUESTO.-
Grupo de Clasificación: A
Nivel Complemento Destino: 29
Complemento Específico: 42.881,70 euros
Perfil lingüístico: 4, sin fecha de preceptividad
Localidad destino: Vitoria-Gasteiz
Dedicación: Exclusiva
Disponibilidad: 90 horas
TERCERA.- REQUISITOS.-
Tener la condición de funcionario/a de carrera de las Administraciones Públicas Vascas y pertenecer al Grupo A de titulación y a las Escalas de Administración General o Administración Especial o equivalentes de conformidad con lo dispuesto en el Decreto del Gobierno Vasco 208/1990, de 30 de julio, y estar en posesión del título de Licenciado/a en Derecho.
CUARTA.- INSTANCIAS.-
Los/as interesados/as deberán dirigir sus solicitudes al Ilmo. Sr. Diputado Foral de Promoción Económica y Administración Foral y las presentarán en el Registro General de la Diputación Foral de Álava, o por cualquiera de los medios previstos en el artículo 38 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en el plazo de quince días hábiles a partir del siguiente al de la publicación de este anuncio en el BOPV.
En dicha solicitud, deberán hacer constar, además de los datos personales:
A) Títulos académicos.
B) Puestos de trabajo desempeñados, tanto en la Administración Pública como en la Empresa privada.
C) Estudios y cursos realizados, conocimientos de idiomas.
D) Cuantos otros méritos estime el aspirante oportuno manifestar.
Deberán acompañar la documentación justificativa de los requisitos y de los méritos alegados.
QUINTA.- RESOLUCIÓN.-
Vistos los méritos alegados por los/as aspirantes el Director del Gabinete del Diputado General elevará propuesta de nombramiento al Diputado Foral titular del Departamento de Promoción Económica y Administración Foral.
En todo caso podrá declararse desierta la convocatoria por falta de idoneidad de los/as aspirantes.
La adjudicación se realizará mediante Orden Foral del Diputado de Promoción Económica y Administración Foral.
SEXTA.- IMPUGNACIÓN.-
Estas Bases, su convocatoria y cuantos actos administrativos deriven de los mismos, podrán ser impugnados en los casos y forma establecida en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

## INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

2303

**205/2013 FORU AGINDUA, apirilaren 19koa, zeinaren bidez, alde batetik, ukatzen baitzaio eta, beste aldetik, ematen baitzaio behin betiko onarpena Iruraiz-Gaunako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen bosgarren aldaketari buruzko espedienteari.**

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Iruraiz-Gaunako Udalbatzak, 2012ko ekainaren 29ko bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea planeamenduko arau subsidiarioen bosgarren aldaketari buruzko espedienteari, eta espediente hori jendaurrean jartzea. Azken hori ALHAOn (87 zenbakia, 2012ko uztailaren 30ekoa), Diario de Noticias de Alava egunkarian (2012ko uztailaren 30ean) eta udalaren iragarki taulan iragarkiak argitaratuz eta udalerriko administrazio batzarrei jakinaraziz egin zen.

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

2303

**ORDEN FORAL 205/2013, de 19 de abril, de denegación de la aprobación definitiva y aprobación definitiva del expediente de la quinta modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Iruraiz-Gauna.**

ANTECEDENTES

Primero.- El Ayuntamiento de Iruraiz-Gauna acordó, en sesión del día 29 de junio de 2012, aprobar inicialmente el expediente de la quinta modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, así como someterlo a información pública, hecho que fue practicado mediante la inserción de los oportunos anuncios en el BOTHA nº 87, de 30 de julio de 2012, en el periódico Diario de Noticias de Álava de 30 de julio de 2012, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y notificación a las Juntas Administrativas del municipio.

Bigarrena.- Jendaurrean egon zen bitartean, ez zen inolako alegaziorik aurkeztu; beraz, udalak, 2012ko urriaren 18ko bilkuran, behinbehineko onarpena eman zion espedienteari eta ebazpen horren berri eman zien udalerriko administrazio batzarrei.

Hirugarrena.- Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, Arabako Hirigintza Planeamenduko Atalak abenduaren 11n egindako 8/2012 bilkuran, espedientearen aldeko txostena eman zuen.

Laugarrena.- Iruraiz-Gaunako Udalak espedientea bidali zuen, Aldundiak, egoki iritziz gero, behin betiko onar zezan (sarrera erregistroko data: 2012ko urtarrilaren 28a).

Bosgarrena.- Halaber, abenduaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren 155/1999 Foru Dekretuan agindutakoa betez, Arabako Hirigintza Batzordeak espediente horri buruzko txostena egin zuen martxoaren 12ko 2/2013 bilkuran.

OINARRIAK

Lehenengoa.- Espedientearen helburua da ondoren zerrendatzen diren sei aldaketa hauek egitea arautegiaren 200. eta 203. artikuluetan:

**200. artikulua.- Lurzoru urbanizaezina.**

1.- Nekazaritzako biltegi gisa erabiltzekoak diren eraikinetako teilatu hegalen altura aldatzea eta arautzea.

2.- Nekazaritzako biltegi gisa erabiltzekoak diren eraikin en eraikigarritasuna aldatzea eta arautzea.

3.- Abeltzaintzako ustiategietatik hiri lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren mugetaraino utzi beharreko distantzia aldatzea eta arautzea.

4.- Lurzoru urbanizaezinean autokontsumorako erabiltzekoak diren eraikinei aplikagarri zaizkien hirigintza parametroak arautzea.

**203. artikulua.- Hiri lurzorua.**

1.- Lurzatietako itxiturak egiteko materialak aldatzea eta arautzea.

2.- Eraikin osagarrien (ataripeak, txabolak, egurtegiak, etab.) hirigintza parametroak arautzea.

Bigarrena.- Aldi berean gertatu dira Iruraiz-Gaunako Udalak izapidetutako espedientea eta Eusko Jaurlaritzaren urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren onarpena eta indarrean jartzea (2012ko azaroaren 19an, 223 zenbakiko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutakoa). Azken horren bidez arautzen da planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura.

Aipatutako dekretuaren xedapen iragankorrak ondokoa ezartzen du:

“Dekretu hau indarrean sartzen denerako hasierako onarpena izan duten edo lehenbiziko onarpen administratiboa izan duten planak eta programak ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioprozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuan ezarritako prozeduraren pean egongo dira”.

Ebazpen honetako gaia den espedientearen hasierako onarpena 2012ko ekainaren 29ko bilkuran erabaki zuenez Iruraiz-Gaunako Udalbatzak, espediente horri aplikagarri zaizkion ingurumen arloko arauak uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuan jasotakoak ziren.

Aipatutako dekretuaren 3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen eraginaren baterako ebaluazioaren prozedura egin behar zaie honako planei, besteak beste: planeamenduko arau subsidiarioei eta lurzoru urbanizaezinean eragina duten haien aldaketei.

Aurreko horren ondorioz, Iruraiz-Gaunako Udalbatzak 2012ko ekainaren 29an erabakitako hasierako onarpena ez dator bat zuzenbidearekin; izan ere, bosgarren aldaketako zehaztapen batzuek lurzoru urbanizaezinari eragiten diotenez, nahitaezko betekizuna zen ingurumen eraginaren baterako ebaluazioaren prozedura izapidetu beharra. Ondoren hartutako ingurumen arloko erabakiek (2013ko urtarrilaren 9ko ebazpena eta otsailaren 8ko txostena) ez dute ondorio juridikorik, hasierako onarpenari buruzko erabakiak lurzoru urbanizaezinari eragiten dioten zehaztapenen inguruan daukan deuseztasun akatsa zuzentzeko.

Segundo.- Durante el periodo de información pública no fue presentada alegación alguna, por lo que el Ayuntamiento procedió, en sesión del día 18 de octubre de 2012, a aprobar provisionalmente el expediente y notificar dicha resolución a las Juntas Administrativas del municipio.

Tercero.- La Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco informó favorablemente el expediente en su sesión 8/2012, de 11 de diciembre, de la Sección de Planeamiento Urbanístico de Álava.

Cuarto.- El Ayuntamiento de Iruraiz-Gauna remitió el expediente para su aprobación definitiva, con fecha de entrada en el Registro de esta Diputación de 28 de enero de 2012.

Quinto.- Asimismo, en cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados núm. 155/99, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su Sesión 2/2013, de 12 de marzo.

FUNDAMENTOS

Primero.- El expediente tiene por objeto seis modificaciones que afectan a los artículos 200 y 203 de la normativa y que a continuación se enumeran:

**Artículo 200: Suelo no urbanizable.**

1.- Regular y modificar la altura de los aleros de las edificaciones destinadas a almacenes agrícolas.

2.- Regular y modificar la edificabilidad de las edificaciones destinadas a almacenes agrícolas.

3.- Regular y modificar la distancia de explotaciones ganaderas al límite del suelo urbano y urbanizable.

4.- Regulación de parámetros urbanísticos aplicables a las edificaciones destinadas a autoconsumo en suelo no urbanizable.

**Artículo 203: Suelo Urbano.**

1.- Regular y modificar los materiales de los cierres de parcela.

2.- Regular los parámetros urbanísticos de las edificaciones auxiliares (porches, casetas, leñeras, etc.)

Segundo.- El expediente tramitado por el Ayuntamiento de Iruraiz-Gauna ha coincidido temporalmente con la aprobación y entrada en vigor del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, del Gobierno Vasco, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas, que fue publicado en el Boletín Oficial del País Vasco nº 223, de 19 de noviembre de 2012.

La disposición transitoria única del citado Decreto establece que:

“Los planes y programas que a la entrada en vigor del presente Decreto hayan sido objeto de aprobación inicial o de una primera aprobación administrativa se someterán al procedimiento establecido en el Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental.”

Dado que la aprobación inicial del expediente objeto de la presente resolución, fue acordada por el Ayuntamiento de Iruraiz-Gauna en sesión del día 29 de junio de 2012, la normativa aplicable a dicho expediente en materia ambiental era la contenida en el Decreto 183/2003, de 22 de julio.

A tenor de lo establecido en el artículo 3.1 del citado Decreto, estaban sometidos al procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental, entre otros planes, las Normas Subsidiarias de Planeamiento y sus modificaciones que afecten al suelo no urbanizable.

Consecuencia de lo arriba expuesto es que la aprobación inicial acordada por el Ayuntamiento de Iruraiz-Gauna el día 29 de junio de 2012 no es conforme a derecho, por cuanto que al afectar algunas de las determinaciones de la quinta modificación al suelo no urbanizable, era requisito imprescindible haber tramitado el correspondiente procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental. Los posteriores pronunciamientos ambientales (resolución de 9 de enero e informe de 8 de febrero de 2013) carecen de efecto jurídico alguno en orden a la subsanación del vicio de nulidad del que adolece el acuerdo de aprobación inicial en relación a las determinaciones que afectan al suelo no urbanizable.

Hirugarrena.- Hiri lurzoruari eragiten dioten bi aldaketak udalak duen planeamendua antolatzeko ahalmenaren barruan sartzen dira, eta ez dago inolako eragozpen tekniko edo juridikorik horiek onartzeko.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Behin betiko onarpena ukatzea Iruraiz-Gaunako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen bosgarren aldaketari buruzko espedienteari, lurzoru urbanizaezinari eragiten dioten zehaztapen berriei dagokienez (arau subsidiarioen 200. artikulukoak).

Bigarrena.- Behin betiko onarpena ematea Iruraiz-Gaunako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen bosgarren aldaketari buruzko espedienteari, hiri lurzoruari eragiten dioten zehaztapen berriei dagokienez (arau subsidiarioen 203. artikulukoak).

Hirugarrena.- Iruraiz-Gaunako Udalak beste agiri bat aurkeztu beharko dio Arabako Foru Aldundiari, behin betiko onartu diren zehaztapenak bakarrik jasoko dituena, beharrezko eginbideak egiteko eta argitaratzeko.

Laugarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Bosgarrena.- Administrazio bidea agortzen duen ebazpen horren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahalko da, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu ondorengo egunetik kontatzen hasita, EAEko Auzitegi Nagusiaren jurisdikzio horretako salan.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko apirilaren 19a.– Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

Tercero.- Las dos modificaciones que afectan al suelo urbano forman parte del ejercicio de la potestad de planeamiento que corresponde al Ayuntamiento, sin que exista obstáculo técnico-jurídico alguno para su aprobación.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Denegar la aprobación definitiva del expediente de quinta modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Iruraiz-Gauna, en la parte que se refiere a las determinaciones modificadas que afectan al suelo no urbanizable y que se regulan en el artículo 200 de la normativa.

Segundo.- Aprobar definitivamente el expediente de quinta modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Iruraiz-Gauna, en la parte que se refiere a las determinaciones modificadas que afectan al suelo urbano y que se regulan en el artículo 203 de la normativa.

Tercero.- El Ayuntamiento de Iruraiz-Gauna deberá elevar a la Diputación Foral de Álava un nuevo documento, en el que se contengan solamente las determinaciones que han sido aprobadas definitivamente, para su diligenciación y publicación.

Cuarto.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Quinto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, 19 de abril de 2013.– La diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.

## INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**2373**

**215/2013 FORU AGINDUA, apirilaren 25ekoa, Arabako Teknologia Parkea Zaintzeko Hirigintza Erakundearen zuzendaritza organoan sartutako aldaketa Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan inskribatzeari buruzkoa.**

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Gasteizko Udalak, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2013ko apirilaren 12ko sarrera data duen idazkiaren bidez, Arabako Teknologia Parkea Zaintzeko Hirigintza Erakundearen administrazio kontseiluan izandako aldaketaren berri eman dio Arabako Foru Aldundiari, aldaketa hori Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan inskriba dezan.

Bigarrena.- Arabako Teknologia Parkea Zaintzeko Hirigintza Erakundea Hirigintza, Arkitektura eta Ingurumen Saileko foru diputatuaren azaroaren 20ko 743/1996 Foru Aginduaren bidez inskribatu zen Arabako Hirigintza Erakunde Laguntzaileen Erregistroan.

OINARRIAK

Lehenengoa.- Arabako Teknologia Parkea Zaintzeko Hirigintza Erakundearen Administrazio Kontseiluko idazkariak egiaztatzen du 2013ko martxoaren 27an egindako aparteko batzarrak erabaki zuela José Miguel Corres Abasolo jauna 3 urterako Administrazio Kontseiluaren lehendakari izendatzea.

Bigarrena.- Hirigintza Kudeatzeko Arautegiak 27. artikuluan xedatzen du Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan inskribatuko direla Hirigintza Erakunde Laguntzaileetan gertatzen diren gorabeherak, hala nola, erakundearen gobernu eta administrazioaz arduratzen diren pertsonen izendapenak eta kargutik kentzeak.

Hirugarrena.- Hirigintza Zerbitzuak erakundean izandako aldaketak eta haiek erregistroan inskribatzeko proposamena onartzen dituen txosten arrazoitua egin du.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**2373**

**ORDEN FORAL 215/2013, de 25 de abril, de inscripción de la modificación introducida en el órgano rector de la Entidad Urbanística de Conservación “Parque Tecnológico de Álava”, en el Registro de Agrupaciones de Interés Urbanístico de Álava.**

ANTECEDENTES

Primero.- Mediante escrito, con fecha de entrada en el Registro General de la Diputación Foral de Álava del día 12 de abril de 2013, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz comunica a la Diputación Foral de Álava el cambio habido en el Consejo de Administración de la Entidad Urbanística de Conservación “Parque Tecnológico de Álava”, a fin de que sea efectuada la inscripción oportuna en el Registro de Agrupaciones de Interés Urbanístico de Álava.

Segundo.- La Entidad Urbanística de Conservación “Parque Tecnológico de Álava” fue inscrita en el Registro de Entidades Urbanísticas Colaboradoras de Álava en virtud de la Orden Foral núm. 743/1996, de 20 de noviembre, del Diputado de Urbanismo, Arquitectura y Medio Ambiente.

FUNDAMENTOS

Primero.- El Secretario del Consejo de Administración de la Entidad Urbanística de Conservación Parque Tecnológico de Álava certifica que la asamblea extraordinaria celebrada el 27 de marzo de 2013 acordó nombrar Presidente del Consejo de Administración a D. José Miguel Corres Abasolo por un periodo de tres años.

Segundo.- Establece el artículo 27 del Reglamento de Gestión Urbanística que las incidencias que se produzcan en las Entidades Urbanísticas Colaboradoras, tales como nombramientos y ceses de las personas encargadas del gobierno y administración de la Entidad, se inscribirán en el Registro de Agrupaciones de Interés Urbanístico.

Tercero.- El Servicio de Urbanismo eleva informe razonado admitiendo las modificaciones introducidas en la Entidad y proponiendo su inscripción en el Registro.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,